

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko ekainak 19, 155. zenbakia

ARKOK argitaratua Udalaren laguntzaz



**San Juan
jaiak 92**



BAR
KAJOI



LORAMENDI KIROLAK

HEMEN DAUDE ZURE MARKA ATSEGINENAK


BANANA
MOON



BAINUJANTZITAN ESPEZIALISTAK

JAI
ZORIONTSUAK
IZAN!

NEREA



Erdiko kale, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 13 43

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Maketazioa:

Goio Arana

Publizitatea:

Kepa Oliden

Tfnoa: 77 08 15

Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier
Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz,
Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon
Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-
Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon
Andueza, Udako Ingurugiro Eskola, Juan
Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654


Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo
Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.



Agurra

Arrasatearrok!

*Salto egingo dugu, aurten ere... sugarren
gainetik. Gaztelu zaharraren gerizpe beltza,
geure iraganaren lekuko, argi dadin arte.*

*Herensugearen orroak, oihartzun uhinak
eragingo ditu urrutian, hemen diraugula
berretsiz; eta bitartean makalak begirada
guztiak bilduko ditu zutunik jarri arte. Gero
jaiak eztanda egin dezala.*

*Agur denoi, baina bereziki aurten ere...
errefuxiatu eta preso jarraitzen duzuen guztioi.
Atsegin dakizuela egitaraua, atseginago jaiak.*

Ondo passau.

Alkatea

ONDO PASATU JAIK!

eya

ELEKTROTRESNAK

Argizatze tresnetan
aukera zabala

Iturriotz, 21 Tfnoa: 79 03 84 ARRASATE

San Juanak kanpoan ala Arrasaten pasatuko dituzu?



Teodoro Arkonada
(Langabetua)

Bai, hemen pasako ditut jaiak. Urtero pasatzen ditut bertan.



Justi Gartzia
(Etxekoandrea)

Hemen geratuko naiz. Urtero hemen geratzeko ohitura izaten dut eta.



Ines Galdos
(Etxekoandrea)

Uste dut nire alaba bisitatzera joango naizela. Jai hauek bukatu be ez dira egi-ten eta, gazte batzuen aldetik ez dago ez ordurik ez errespetorik.



Rafael Nafarrate
(Langilea)

Lana egitea tokatu zait eta lanean pasatu beharko ditut jaiak. Gainera, urtero pasatzen zait gauza bera.




Jose Luis Martinez
(Langilea)

Ez dut kanpora joateko asmorik. Gustora pasatzen ditut hemen eta bertan geldituko naiz.



Eugeni Mendiguren
(Etxekoandrea)

Hemen geratuko naiz seguruenik. Orain arte ez naiz sekula kanpora irten eta aurt-ten ere hemen geratuko naiz.



ONANDIA -k

“Txanpan tarta”
gomendatzen dizu
San Juak jaiak ospatzeko.

ZORIONAK!


Iturriotz, 11 Tfnoa: 79 12 31 ARRASATE



DAMKART

Estetika eta Ileapaintzaile
Eskola
M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR



Araba Etor., 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32

Koop. E.

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

92-93 IKASTURTEA


ALEMANA FRANTSESA INGELESA

Matrikula irekita
Hurbil zaitez gure bulegoetara.

Arrasaten 9etatik 1etara
4 etatik 8etara

Oñatin 4etatik 8etara

AZAFATA, HARREMAN PUBLIKO eta TURISMO-GIA ESKOLA



Pasajes de San Pedro, 1
GASTEIZ
Tfnoa: 945 - **28 35 34**

ARAMAIO okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

LETE Toldoak

Kataide industrialdea, 14. pabiloia

- Arrasate: 79 23 83
- Bergara: 76 12 24
- Iurreta: (94) 681 76 19



UXARTE

Kafetegia,
gozotegia
Gauetz irekita!!

JO TA KE!!
Bañez doktorea, 12
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

AKADEMIA
BASTIDA

Ferrerias, 44 etxeba
20.500 Arrasate
Tfnoak: 79 32 16
79 77 13

NEBek HOMOLOGATUTAKO ZENTRUA

1992 UDAKO IKASTARO TRINKOAK

- GESTIO INFORMATIKA
- PROGRAMAZIO INFORMATIKA
- KONTABILITATEA ORDENAGAILUZ
- MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ
- TAKIGRAFIA
- KLASE BEREZGARRIAK
- MERKATAL KORRESPONDENTZIA EUSKARAZ

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

SLIMMING EMAKUMEEN GIMNASIOA


ESKAINZA:

Gimnasia aktiboa Ikastaroak: aerobic-a, jazz-eko lehen urratsak, dantzako lehen urratsak, diskoa, erritmoa, gimnasia pasiboa eta masaia.

Irakaskuntzako kalitatea eta kalitate profesionala.

Arreta pertsonalizatua.

Deitu arratsaldez 77 01 87 tfnora. ERGUIN 3 etxabea. ARRASATE




FLORES MONHCA

• Koroak • Ezkontzarako lore sortak • Landareak • Lore gunek •

Mondragones kalea, 9 etxabea Tfnoa: 79 12 30 ARRASATE

ZABALETA lurrindegia

Maestro Arano, 2 Tfnoa: 79 12 32 ARRASATE



Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57

Gabriel Elorriaga Dka.

**Loditasuna • Zelulitia
Zelulopolisiaren
tratamendua**

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

VE ECUADOR

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

EDER apaindegia

honako zerbitzu hauek
eskaintzen ditugu:

- Solarium-a
- Ileenketa
- Masaia
- Manikura
- Larmintz garbiketa
- Makilaia
- Pedikura

Maalako errabala, 6 1. ezkerre
ARRASATE Tfnoa: 79 71 23

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Politxak dira aurtengo barrakak?



Benart Olalde
(Ikaslea)

Ondo daude. Beste batzutan baino hobeto, gehiago daude eta. Tiro pitxioia da gehien gustatzen zaidana.




Amaia Arroyo
(Ikaslea)

Joan zen urtean baino hobeto daude. "La ola" da gehien gustatzen zaidana. Garestiak be badira baina ondo pasatzen dugu eta...




Leire Ayani
(Ikaslea)

Bai, niri noria eta "La ola" dira gehien gustatzen zaizkidanak. Baina joan zen urtean hobeto egon ziren, "El dragón" eta "El sapito loco" egon ziren eta.



Kauldi Miranda
(Ikaslea)

Oraindik ez naiz ibili baina ikusi ditut eta ondo daude. Beste batzutan txikientzat egoten dira bakarrik.




Jon Sagasta
(Ikaslea)

Ez ez naiz ibili oraindik baina barraka gehiago egon behar litzateke nire ustez.



Maider Eriz
(Ikaslea)

Ibili naiz eta beste urte batzutan egon izan dira hobeak. Oso garestiak dira eta pagatik zati bat hor gastatzen dut.



GOI MAILAKO BITXITEGIA ETA ERLOJUDENDA

Gure produktuaren kalitate handia da gure dizdira. Akabera bikaineko bitxiak, diseinurik moderno eta dotoreenekoetan eginak.

NAROKI

**ERDIKO KALE, 23
Tel. 792047 ARRASATE**

Onduline



TXOMIN HERIZ

**eraikuntzarako
materialak**

**Billegia: Bidekruzeta, 1
Tfnoa: 79 23 18**

San Juanak onera ala txarrera doaz?




Pepe Karreteragoiti
(Kobateko langilea)

Ez naiz askotan etortzen eta etortzen naizenean Aramaion tragu batzuk hartu ondoren izaten da, eta ordu horietan dena ondo iruditzen zait.



Leire Diaz de Garai
(Ikaslea)

Nahiz eta jendeak beste aukera batzuk izan, jaietan zentratzen da bakarririk. Horregatik, niri gustatzen zait egun horiek beste gauza batzuk egiteko aprobetxatzea.



Jone Lasagabaster
(Kirolaria)

Nire ustez ez dira asko aldatu, beharbada nik ondo pasatzen dudalako.



Joxe Bixente Etxabe
(Artzaia)

Nik mendian igarotzen dut ia hilabete osoa artzai eta ez dakit ezer San Juanei buruz.



Fermin Ruiz
(Langilea)

Nire ustez onera doaz, herri mailako jaiak izateko nahiko ondo daude. Hobetuz doaz.



Maria Ester Leiza
(Etxekoandrea)

Juerga gehiago egiten da, gehiago edaten da eta jendea askoz beranduago erretiratzen da. Baina seguruenik gazteentzat ez dira txarragoak izango.

TXITXINPE

Berezitasunak:

akeita, ardoak, urdaitegia, fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33 Tfnoa: 79 67 76 ARRASATE

San Andres auzoko

MESON MANOLOk


jai zoriontsuak opa dizkizu

a.eme..interiores




etxeko ekipamendu osoa...

1960tik, gaur zuri bitxi eta erlojugintzak katalogorik zabalena eskaintzeko



Zubiaga
Kale-barria, 18
20.560 Oñati
Tfnoa.: 71 60 74

Zubiaga
Maalako Errabala 5,
20.500 Arrasate
Tfnoa.: 79 19 25
Fax: 79 14 89



OKIENDO

KIROOLAK

San Juan Jaiak 92 Egitaraua

Ekainak 19, ostirala

• 10.30etan, Musakolako Kiroldet-
gian **Rock Jaialdia**: *Suta Gar*,
Danba eta *Julio Kageta* tal-
deek parte hartuko dute. S. F.
Xabier Ikastolak antolatua, 25.
urteurrena dela eta.

Ekainak 20, larunbata

• 10.30etan, Iturripeko Froiloian
XII. **San Juan Esku Pilota**,
"Pilotarien Batzarra" Saria
benjamin A, benjamin B, in-
fantil, prejuvenil eta juvenil
mailetan.

• 11etan, Herriko Plazan **Halte-
rofilia** erakustaldia.

• 4etan, Atxabalpeko rugby ze-
lailan, **rugby partiduak**:
Arrasate Rugby Taldea, *Se-
villa* eta *Baionako Tipi-Tapa*
taldeak.

• 4.30etan, **Txirrindulari laster-
keta** handia, benjamin, ale-
bin eta infantil mailetan,
neska-mutilen partaidetzare-
kin. Ibilbidea: Portaloia, Gari-
bai, Otalora, Kondekua, Por-
taloia.

• 7.30etan, **umeen tanborrada**
Eskoriatzako Musika Banda-
rekin, kaleetan zehar ibili on-
doren Herriko Plazan buka-
tuko da. SUDCek antolatua.

• Gaueko 11etan, Herriko Plazan
Bries taldearekin **dantzaldia**.



San Juan Jaiak 1992ko kartela. Egilea, Jean Martin Oyhagarai

Arrasate Pentsuak

- Txoriak, arrainak, txakurrak, katuak eta abere mota guztiak.
- Etxeko abereentzako janari eta osagarriak.
- Pentsuak, laboreak eta haziak.
- Fitosanitarioak.



Zarugalde, 19 / Otalora, z/g Tfnoa: 77 06 67
ARRASATE

Ekainak 21, igandea

Haurren Eguna

Pilotarien Batzarra

• 9etatik ordubiak arte, aire zabalera **pintura lehiaketa**, egindako lanak Monterroneko erakusketa-aretoan jarriko dira hilaren 26a arte. Sari banaketa, aretoan bertan arratsaldeko 6etan egingo da. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak antolatua.

• 10.30etan, Sebero Altube Plazan **makallau lehiaketa**. Epaileak Karlos Argiñano, Gaizka Matxo eta Xabier Zubizarreta.

• 10.30etan, Nafarroa Etorbidean bilduko dira ume dantzarien taldeak.

• 10.30etan, **Pilotarien Batzarra, ongietorria** Udaletxeko Kontzejupean.

• 10.45etan, Nafarroa Etorbidetik Herriko Plazaraino ume dantzarien taldeen **desfilea**.

• 11etan, Pilotarien Batzarra, San Juan Bataiatzailea Parrokian **meza nagusia**.

• 11etan, Atxabalpeko futbol zelaietan **Herrero Memorialaren** finala.

• 11.45etan, Pilotarien Batzarra, ohorezko **aureskua**.

• 11.45etan, kaleetan zehar dantzari-taldeen **kalejira eta dantzak**.

• 12etan, Pilotarien Batzarra, asanblada. Alai zineman.

• Ordubatean, Pilotarien Batzarra, **argazki erakusketaren** inaugurazioa Arrasate aretoan.

• Ordubi t'erdietan, Pilotarien Batzarra, adiskidetasunezko **bazkaria** Iturripeko kiroldegian.

• 5etan, Herriko Plazan dantzari-talde guztien jarduna eta **agurra**. *Txikitxu, Arrostaiz eta Lore Gazteak* taldeek antolatua.

• 6etan, Sebero Altube Plazan haurrentzako **tortila lehiaketa**.

• 7.30etan, Herriko Plazan *Txin-txarri* eta herriko musika taldeekin batera **herri-dantzaldia**.

Ekainak 22, astelehena

• 10etan, Monterron parkean Bergarako *Taun-Taun* antzerki taldearen azken obraren estrenea euskarazko bertsioan.



Dantzarien Eguna igandean burutuko da



Pilotariek aurten jai berezia izango dute

SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK!!!

LENIZ
garagardotegia



Iturriotz, 8 Tfnoa: 79 22 29 ARRASATE

Ekainak 23, asteartea

- 3etan, Herriko Plazan **etxafle-roak** eta **bonba japoniarrak**.
- 5etan, Herriko Plazan **Azkona** taldearekin **umeentzako antzerkia** eta animazioa.
- 5.30etan, kuadrilak Musakolan elkartuko dira **Tronpalarik** la-gunduta **txoppo** ekartzeko.
- 6.30etan, kuadrilek txoppo ja-soko dute Herriko Plazan. Ondoren **Txupinazioa**.
- 7.30etan, San Juan Bataiatzailearen parrokiari **Salve solemnea**.
- 8etan, Arrasateko **Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren desfilea**.
- Gaueko 10.30etan, Herriko Plazan **San Juan sua** Lore Gazteak eta Arrostitz Dan-tza taldeen laguntzaz.
- Gaueko 11etan, Nafarroa Etor-bidetik irten eta Azkoitiko mu-sika bandarekin **nagusien Tanborrada**. SUDCek anto-latua.
- Ordubatetatik aurrera, Herriko Plazan **Izan** taldearekin **dantzaldia**. Kaleetan zehar **Arrasateko Gaiteroen kalejira**.

Ekainak 24, astelehena
San Juan Eguna

- 8.15etan, **diana** Arrasateko Gaiteroekin.
- 8.45etan, entzierroko partehar-tzaileak **Maritxu Kajoiri eskaintza**.
- 9etan, **entzierroa**, Ferrerías kaletik irten, Erdiko Kale eta Iturbidetik pasa ondoren, Ro-neoko orubean kokaturiko zezen plazan bukatuko da.
- 11etan, San Juan Bataiatzailea-ren parrokiari **meza nagusia**.
- 11etan, Arrasateko **Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren desfilea**.
- 11.30etan, **Bergarako Udal Mu-**

sika Bandarekin kalejira.

- 12etan, Abaroan 80 urtetik go-rako **aiton-amonei omenal-dia**.
- Ordubatetan, Monterron parkean **kontzertua** Bergarako Udal Musika Bandaren eskutik.

Egitaraua:

Euskal Festara Martxa, J. M. Usandi-zaga

Der Freischutz Obertura, C. M. Web-ber

El principe Igor Guda Dantzak, A. Bo-rodin

El fantasma de la opera Banda Sonora A. L. L. Webber

Highland Rhapsody J. V. Der Roost

Zuzendaria: *Alfredo Gonzalez Chirila-que.*

- 7etan, zezen plazan **zezen jaialdia**.
- 7etan, **Tximeleta** txarangarekin **kalejira**.



Urtero bezala, tanborren hotsa nagusituko da San Juan bezperan

- 7etan, Sebero Altube Plazan Leintzko bertsolari gazteak eta Rekalde Anaiak trikitali-riak.
- 9etan, San Juan Bataiatzailea Parrokiari **Arrasate Musikal Orkestra** Sinfonikoaren es-kutik **kontzertua**.

Egitaraua:

Finlandia Poema Sinfonikoa, Jean Si-belius.

Concertino Para trombón y orquesta de cuerda, Lars Erik Larsson.

Serenata en sol Pequeña musica nocturna, W. A. Mozart.

Concierto para violoncello y orquesta C. Saint Saens.

Pompa y circunstancia nº 1, Edward Elgar.

San Juan Himnoa.

Zuzendaria: *Juan Arzamendi Enparanza*

- Gaueko 10etan, Zaldibarren **rock jaialdia: Komando Mo-riles, Banana Boatseta The All Nighters** taldeekin. Kuadrilen Komisioak antolatuta.
- Gaueko 11etan, Herriko Plazan **Tarantella** taldearekin **dantzaldia**.
- Gaueko 11etan, Sebero Altube Plazan **Rekalde Anaiak** triki-tilariak.
- Gaueko 11.30etan, Santa Bar-baratik **suzko errubera ikusgarriak**.
- Gaueko 12etan, Herriko Plazan zezen **suzkoa**.

BELUN taberna

Lagunarte bikaina!

Garagartza auxos, z/g Tfnoa: 79 61 14



ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

Ekainak 25, osteguna

- 7.45etan, kuadrilenzako txokolatada.
- 8.15etan, **diana** Arrasateko Gaiteroekin.
- 8.45etan, entzierroko partehar-tzaileek **Maritxu Kajoiri eskaintza**.
- 9etan, **entzierroa** aurreko eguneko ibilbidetik. Ondoren bigantxak izango dira zaleentzat.
- 9.30etan, 1. eta 2. mailako afizionatuentzat **txirrindulari lasterketa, LIV. San Juan Saria**. Ibilbidea: Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Untzila gaina, Arrasate, Oñati, Arrasate.
- 11etan, Arrasateko **Erraldoi eta Kilikien konpartsaren desfilea**.
- 11.30etan, **kalejira Bergarako Musika Banda** Gaztearen eskutik.
- 12etatik ordubietara eta arratsaldeko 4etatik 7etara, Zal-

dibar pilotalekuan **haurrentzako ikuskizuna** (Kars pista, puzgarri erraldoia, zezen mekanikoa...).

- Ordubetan, Monterron parkean **Bergarako Musika Banda** Gaztearen **kontzertua**.

Egitaraua:

*Pepita Greus Pasodoble P. Perez Chovi
Raymond Obertura, A. Thomas
Ezpata dantza, Miguel Gonzalez Bas-
tida.*

*Ciclo de rios Suite, A. Malando.
Comedians Galop, D. Kabalevsky.
Zuzendaria: Angel Agiriano.*

- 6etan, **kuadrilenzako jokuak**.
- 7etan, herriko kaleetan zehar **kalejira Tximeleta** txaranga-
ren eskutik.
- 7etan, Sebero Altube Plazan **Jon Sarasua** eta **Angel Mari Peñagarikano** bertsolariak gai libreak eta **Maixa eta Itziar** trikitalarien emanaldia.
- Gaueko 10.30etan, Monterron parkean **antzerkia. Las Venenok** "Veneno Pa' ti" ikuskizuna eskainiko dute. Sarrera doan.
- Gaueko 11etatik aurrera, Herriko plazan **Txatanuga Futz Band** orkestrarekin dantzaldi bikaina.
- Gaueko 12etan, herriko plazan zezen suzkoa.

Ekainak 26, ostirala Kuadrilen Eguna

- 8.15etan, **diana** Arrasateko gaiteroekin.
- 8.45etan, entzierroko partehar-tzaileek **Maritxu Kajoiri eskaintza**.
- 9etan, **entzierroa** aurreko eguneko ibilbidetik. Ondoren zaleentzat bigantxak.
- 11.30etan, **kalejira Arrasateko Trikitalari** taldearekin.
- 12etan, Sebero Altube Plazan **kuadrilen kontzentrazioa** eta txalaparta saioa.
- 12.15etan, **herri-txikiteoaren** hasiera **Incansables** txaranga-
lak alaiturik.
- Ordubi t,erdietatik 6ak arte, Zaldibarko pilotaleku ondoan

Herri Bazkaria. Goizeko 10etatik aurrera Marmitakoa Ondarruko arrantzaleek gertatuko dute. SUDCek antolatua.


- 6.30etan, Zaldibarko frontoian **esku pilota partidu interesgarriak**, **Gregorio Uranga "Kirru"** enpresario ospetsuaren zuzendaritzapean, ondorengo desafioekin: teloneroa:

Xipri eta Txispas, Txikito de Veneras eta Txikuriren aurka.
estelarra:
Urta Irazolaren aurka.

- 7etan, **Incansablestxaranga** eta kuadrilekin **kalejira**.
- Gaueko 10etatik aurrera, **Anker** taldearekin **dantzaldia** herriko plazan.
- Gaueko 12etan, Herriko Plazan **Tronpalari** erretzea.



Zaldibarren pilota partidu interesgarriak



**ZUR
LUR-ek
jai zoriontsuak
opa dizkizu**

Erdiko kale, 19 Tfnoa: 79 17 87 ARRASATE

**I
R
T
A
T
I**
BERNA

*San Juanetako
gizorik onena
zure tabernan*

Ferrerias kalea ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80



Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

**ZURE
TABERNA!**

Haurren Eguna barne, aurtengo San Juanek 13.000.000 PTako aurrekontua

Aurtengo San Juanetako aurrekontu orokorra 13.375.000 PTakoa da. Aipatutako diru-kopuru hori zertan gastatzen den ikusteko, antolatu diren gauza guztiak kontuan hartuta gehiegi zehaztea ezinezkoa bada ere, ekintzen sailkapen bat egin daiteke. Horrela, musika taldeak ekartzeko, kontzertu eta dantzaldiak barne, 2.630.000 PTA erabili dira eta kale-animazioan (antzerki, txaranga, suzko erroberak, trikitalari, bertsolariak...) 3.015.000 PTA. San Juanetako ohituren inguruan, tanborrada, sua, txopoa etab, 1.885.000 PTA gastatuko dira eta urteroko



Banden kalejira eta kontzertuetarako 525.000 PTako aurrekontua dago

lehiaketetan 700.000.

Bestalde, zezenen inguruko ekintzetarako 1.050.000 PTako aurrekontua dago eta banden kalejira eta kontzertuetarako 525.000. Azkenik,

Haurren Eguna, Herri Bazkaria eta Aiton-amonen omenaldia 1.305.000 PTA, kirol ekintzak 425.000 PTA eta azpiegiturari dagozkien beste hainbat gastu,

1.840.000 PTA. Hasieran esan bezala, guztira 13.375.000 PTako aurrekontua.

Aurrekontuaz zerbait esatekotan, kanpotik ikusita aipagarriena kirol ekintzena litzateke, antolatutako zazpi kirol proben artean 425.000 PTako aurrekontua besterik ez daukate eta. Beraz, argi dago kirol ekintzak direla jaietako egitarauaren gauzarik merkeena.

Bukatzeko, antolatutako ekintzek duten zabaltasuna ere aipagarria da: Monterron, Herriko Plaza, Zaldibar, Iturripe, Seber... eta beste hainbat tokitan burutuko dira eta.

JOSE. A. HERNANDEZ BANATZAILEA



Bañez Dokorea, 6
Tfnoak: 79 74 12
79 22 40
79 85 32
ARRASATE



ATBk programazio berezia, Sebero Altube plazatik egunero zuzenean

Iaz eta orain bi urte egin zuen bezala, San Juanetan zuzeneko emisioak egingo ditu aurrean ere ATBk Sebero Altubetik. ATBren egitarau berezia lau eguneko eskainiko da, 23an hasi eta 26an bukatu. Goizez burutuko den programak aurreko urteetan egin denaren itxura handia izango du, hau da: antolatzaile, talde desberdinei eta jaietan parte hartzen duen jendeari egindako elkarrizketek, San Juanen inguruan egindako bideoen proiektzioa eta goizean zehar burutzen diren ikuskizunen zuzeneko emana diek osatuko dute. Aipatutako Magazineak bi orduko iraupena izango du, egunero eguerdiko 12.30etatik 2.30ak arte.



Berrikuntza ugari izango da ATBko programazioan

Arratsaldetan egingo den programak ez du zerikusirik izango goizekoarekin eta, nolabait, kalean dagoen jendeak parte hartzeko aukera handiagoa izango du. Egunero, arratsaldeko 6etan ATBketan lehiaketari emango zaio hasiera eta Seberon

bertan egingo da, zuzen zuzenean. Lehen hiru egunetan ATBketan umeei zuzenduko zaie eta eurak izango dira partehartzaile. Laugarren egunean, berriz, jende helduak izango du protagonismoa. ATBketaneko lehiakideez gain, begira daudenek

ere parte hartzeko aukera izango dute, normalean telefonoz eskatzen diren puntuaketa beraiei eskatu zaizkie eta. Aipatutako lehiaketa, gutxi gorabehera 7.15etan bukatuko da eta ondoren, 7.30ak arte Telematon saioa ikusteko aukera izango da. Saio hau egiteko, arratsaldero eta bi orduz, kalean kamara bat jarriko da eta kamara aurrean eskenategi bat, handik pasatzen den guztiak kamara aurrean nahi duena egin dezan. Bi ordu horietan jendeak egiten dituen numero politenekin osatuko da 7.15etatik 7.30etara eskainiko den Telematon saioa. Argi dago, aukera paregabea dela jendeak bere trebetasunak ager ditzan.

**SAN JUANETAN NORA?
BENGOA TABERNARA**

**ileapaindegiak
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZU**

Tfnoa: 79 37 88 ARRASATE



Irtetzko azken prestakuntzak egiten, jende asko bildu da agentzietan

Bidai agentzien arabera, iaz baino jende gehiago kanpora

Arrasateko lantegi gehienetan 23tik 29ra jai hartuko San Juan herriko jai hauetan. Hori dela eta, jende asko kanpora joango da astea pasatzen. Bertako agentzietatik buelta bat egin ondoren, emaitza hauek atera ditugu, beharbada oso fidagarriak ez direnak, baina erreferentzi gisa balio digutenak.

Eroski, Ecuador, Melia eta Baskotour agentzietan galdetuta, denak izan dute amankomuneko datu hau: iaz eta beste urte batzutan baino askoz ere jende gehiago irtengo da San Juan jaian, "Beste agentziek guk bezala lan egin badute, aurten guztiz desertiko gera-

tuko da Arrasate". Gehienak astebete pasatzera joango dira.

Norabideari dagokionez, toki eguzkitsuengatik galdetu dute gehienek, hondartza iguruen bila eta Baleares, Canarias, Palma de Mallorca, Salou eta Benidorm izan dira gehien eskatu diren tokiak. Gehienak antolatutakoak dira eta batzuk Charter-ez doaz.

Aipatutako toki hauek betikoak dira, hau da, urtero agentziek toki hauetara antolatzen dituzte bidaiak. Baina haue-taz gain, badaude aurten berriak direnak ere: Sevillara eta Frantziako Euro Disney-ra.

Usteak uste

Ezin asmatu! Aurten ere jai-batzordean proposamen ugari erabili da mondragoetarrek San Juanetako giroaz goza dezaten: batzuk, jaietarako aurrekontuarekin Salou, Benidorm edo Exporako bidaiak antolatzea-ren alde agertu dira, beste batzuk, ostera, hamahiru milioiak, arrasatearren aportazio gisa, Mediterraneoko herri horietan San Juanak ospatzen dituztenak diruz laguntzea nahi lukete, San Juanak herbesteratzearekin ados daudenak ere badaudelarik.

Bertan gelditzen garenon artean kexua da nagusi: jaiak motelak direla, urteroko gauza berak prestatzen direla, horregatik alde egiten duela jendeak ... ; izarrez betetako egitaraua gertatu ezker ere, kexu. Zer dira baina San Juanak ohituraren zama hori barik? Zer, zezen, tanborrada, salve, herri—baskari, erraldoi eta kiliki, banda etabarrik gabe?

Ahaztu daigun joan doazenen problemia eta udaren hasierak dakarren suak berotu gaitzala, zezanak erdiko kaletik gora ikusten ditugun bitartean.

JON GARAY

Ondo pasatu jaiak!!!

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketak eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) ARRASATE Tfnoa: 79 93 07

Jai Batzordea

Jaietan parte hartzen duten talde guztiek osatzen dute: Udala, SUDC, Lore Gazteak, Txikitxu, Arrostaitz, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentrua, Koadrilen Batzordea, AUKEA etab. ditu partaide.

Aipatutako taldeak, eta seguruen aipatu barik gelditu den besteren bat, jaietan parte hartzeaz gain, jaietako antolatzaileak dira. Orain urte batzuk, badirudi jaiak prestatzeko bilera ugari egiten zela, baina orain, taldeen arteko koordinazioa nahiko ona denez, ia ez omen dago horren beharrik.

Egitaraua prestatzeko orduan, esan behar da jai batzordekoek San Juanak jai klasikotzat dituztela; hau da: urtez urte eta aspalditik burutzen diren ekintza ba-

tzuk daude, tanborradak, txopoa, San Juan sua, entzierroak... eta horien arteko lotura egiteko, tartean beste hainbat gauza antolatzen dira, proposamen berriak sortu ahala egitarauan integratuz.

SUDC

24 elkartek osatua. Eratu zenetik San Juanetako ekintza askotan hartu du parte eta ezagunena tanborrada bada, beste askotan ere agertzen da. Aurten makallau eta tor-



Aurten ere, SUDCek herri bazkariaren antolaketan parte hartzen du

tila lehiaketak antolatzen ditu, Haurren Egunean 160 arduraduni bazkaria emango die, bertsolari eta trikitilariekin harremanetan jarri eta saioak egin ondoren afaltzera eramaten dituzte eta jaietako bukaera emateko ondarrutarrak ekarriko dituzte marmitakoa presta dezaten eta gainera, herri bazkaria ere antolatuko dute.

San Juanei buruz zera adierazten zuten SUDC-ekoek: *"Jende askok kanpora irteteko ohitura dauka. Herrian geratzen direnei, batez ere gazteei, jaigiroan sartzeko eskatuko genieke, baina ez gaueko giroan bakarrik, egunez alaitasunez ibiltzeko bezalako ekintzak ere badaude eta. Ahalik eta ondoen pasatzeko eskatuko genieke guztiei, baita kanpora doazenei ere, nahiz eta irtetea pena izan"*.

San Juanetan zatoz

CEPA RIOJANAra

Jatetxea / Taberna

Ferrerias, 19
Tfnoa: 79 20 02 ARRASATE

Gaiteroak

1979.urtean sortu zen Arrasateko Gaiteroen elkarte, orduetik hainbat jaietan hartu izan dute parte eta, nola ez, aurtengo San Juanetan ere hala egingo dute. Dianan, zezenetan, buruhandieikin edo eta dantzaldietan ikusiko ditugu. 6 pertsonak osatzen dute taldea, batzuk gaita jotzen eta beste batzuk aldiz tanborraz. Banda osatzeko hiru dira beharrezkoak: bi gaita jotzen, lehen eta bigarren ahotsa osatuz eta bat tanborra jotzen.

Arrasatez gain beste hainbat tokitan ere jotzen dute. Aurtengoari dagokionez, Andoain, Arrasate, Elgoibar, Donostia eta beste leku batzutan egon dira. Eta gaiteroak dauden beste toki batzutan eurakin ere jotzen dute. Guztira eta gutxigora-

behera 40 emanaldi izaten dituzte urtero.

Lokal berrira joatekotan dabilta eta ea ikasten ari diren beste 4-5 lagunek beste batzuk animatzen dituzten partaide kopurua handitzeko.



Gaiteroak kaleak alaitzen ikusiko ditugu urtero bezala

Pilota eskola

Arrasateko Pilota Eskolak orain hamabi urte antolatu zuen lehen aldiz San Juan Eskupilota saria. Orduan bezala, urtariletik hona 8tik

18 urtera arteko 70en bat gaztek hartu dute parte txapelketan kategoria desberdinetan aurten ere. Hilaren 20an, bihar bertan, San Juan Eskupilota Sariko hamabigarren edizioako azken partiduak jokatuko dira, goizeko hamar t'erdietatik aurrera Iturripen. Txapelketa horretaz gain, aurten pilota taldekoek lan berezia izan dute eta izango dute, igandean burutuko den Pilota Batzarren antolakuntzako partaide izan dira eta.

Jai honetarako Ramon Zuazubiskar, Arrasateko Pilota Eskolako arduradunetarikoa batek, arrasatearrei haxeesan nahi zien: *"Ni neuz ez naiz oso juergazalea; hala ere, jendeari goiz erretiratu eta formal ibiltzeko gomendatunioke, jaiak goizean goiz hasita aprobetxatzeko, ez gauzez bakarrik"*.

Hemen bai jaiak!!!



Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67 ARRASATE

Dantzariak

Arrasaten dauden hiru dantza-talde desberdinek hartuko dute parte San Juan jai hauetan: Txikitxu, Lore Gazteak eta Arrostitzek. Txikitxun 65 partaide daude, Arrostitz-en bezala. Txikitxun 6-7 urterik hasi eta 12 bitartekoak daude. Handik irten eta dantzan jarraitu nahi dutenek Arrostitz-en dute aukera, bera bait da dantzari nagusien taldea. Arrostitz orain bi urte sortu zen. Lore Gazteak taldean txiki eta handiak daude, 50 gutxigorabehera, hiru taldetan banatuta. 5 urtetatik 8 urtera bitartekoak, 8tik 14ra eta 14tik aurrerakoak. San Juan sua egiterakoan, Alkateari eskaintzen zaion aureskuan eta Seberon izango diren dantzaldietan hartuko dute parte. Urtean zehar hainbat ikas-

taro izaten dira herriko dantzak ikasteko eta horretaz gain, San Juanetarako prestatzeko ikastaro bereziak egiten dituzte.



Dantzariak Haurren Eguna ospatuko dute igandean

Txistulariak

Txistulariak eta dantzariak nahiko lotuta daude, Lore Gazteak eta Txikitxun, talde

bakoitzean, txistulariak daude. Lore Gazteak taldean 6 dira gutxigorabehera eta Txikitxun beste 8. Normalean 12 neska eta 12 mutiko irretzen dira saio bakoitzean, batzuk txistulariak eta beste batzuk dantzariak, baina 8 eta 8ekin nahiko izaten da. Jantziari dagokionez, ohizkoak erabiltzen dituzte, bakoitzak ahal duen neurria egokituz, bakoitzak erosten bait du bere jantzia.

Urtean bi ikastaro izaten dira eta beti neskak mutilek baino interes gehiago jartzen dute, kopuru handiagoa izaten da nesken taldean. 6-7 urtetik hasi eta 20 urtetik gorakoek ere badaude bertan.

Azken 10 urteotan kalean ikusi ditugu eta aurrean ere hor izango dira, Haurren egunean, Salbean eta beste taldeekin izango diren dantzaldietan.

Ondo paratu
San Juanak!



Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotzik, ez berorik, ez
soinurik...

Tanborrada

Ume eta nagusien tanborradek, gutxi gorabehera 600 pertsona biltzen dituzte urtero, 300en bat bakoitzeko.

Umeen tanborradan 12 urtera arteko umeek hartzen dute parte eta San Juanen atarian burutzen da. Lehen lau elkarten artean antolatzen zen, baina duela urte batzuk SUDC-ek hartu zuen bere gain.

Nagusien tanborrada urtez urte egiten den ekintza da, ohitura sendoa Arrasaten. Lazko eta aurreko urteetan gutxi gorabehera 300 pertsonak hartu dute parte, baina urtero urtero tanborradan ateratzen direnek entsaio beharrik ez dutenez, inoiz ez da jakitén azkenean zenbat lagunek hartuko duen parte. Tanborradan SUDC-eko jendea ibiltzen da, beraz

jaietako beste ekintza askotaz ere arduratzen dira eta jaietako buruzko eritzi bera dute: geratzen den jendeak parte har dezala.

Gaztetxea

Azken orduan izan bada ere, San Juanetarako Gaztetxean egitarau berezia anto-



Nagusi eta gaztetxoek hartuko dute parte tanborradan

latu dute. Hasteko, San Juan bezperan eta arratsaldeko 7etatik aurrera herri-poteoa, gaztetxetik irtenda trikitilariekin batera. Gaueko hamabietan berriz, "Sistemaren aurkako sorgin-su alternatiboa", Gaztetxe inguruan. Hilaren 24ean, goizeko 7.30etan, gau-pasa egin duzue denontzat, jokuak Gaztetxean (aulkiak, saku-karrera...) eta 25eko eguerdiko hamabietan zurkapote degustazioa doan. Antolatutako ekintzei bukaera emateko, 26an kontzertua "Kemando ruedas" gasteiztarrak eta "La secta" bilbotarrak, gaueko 10etan. Aipatutako ekintzez gain, esan beharra dago, egunero goizeko 9etan txokolata izango dela eta baita ogitar-tekoak ere. Azken hauek ez dohainik baina bai oso modu onean.



Deba Garaia

Inmueble eta finantza agentzia

Artekaria: Jesus M^a Markaide

San Juan jai alaitsuak izan!!


Iturriotz, 23 etxabea
Tfnoak: 77 13 02 eta 77 14 27
ARRASATE

5 sarreren irabazleak

Gaurko kontzertura joateko Arrasate Pressek egin duen bost sarreren zozketan honako hauek izan dira sari-tuak.

- Antxone Benitez
- Jaime Lizaranzu
- Haritz Elorza
- Ainara Aranbarri
- Beatriz Ayala


Zorionak irabazleei eta eskerrik asko parte hartu duten gainontzeko guztiei.



San Juanetan errukienak dira **kalegarbitzaileak**: kaleak sekula baino zikinagoak, laguntzaile inprobisatuak edo adarjoleak non nahi... eta gainera "beste guztiak ondo pasatzen eta ni lanean" pentsamendua burutik atera ezinda. Norbaitek oporrak merezita izatekotan, horiek kalegarbitzaileak!

Udaltzaingoak tabernariei

Udaltzaingotik eman diguten ohar batek dioenez, tabernari guztiei jakin arazi nahi zaie, San Juanetan, beste edozein egunetan bezala, tabernetako komunak zabalik eduki behar direla.



◀ ARKOko langile eta kolaboratzaileek **aparteko desafioa** jaso dute AEDko Zuzendaritza Batzordeko kideengandik. Futbolearen erabakiko da afari bat nork pagatu. Zaldibarren ekainaren 27an arratsaldeko 5etan jokatuko duten partiduan.

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE Tfnoa: 79 20 57

Izen
PROPIOAK

● **Karlos Argiñano** sukaldari famatua, **Gaizka Matxo** sukaldaritzakritikoa eta **Xabier Zubizarreta** Arrasateko Alkatea izango dira San Juanetako Makallau Lehiaketako epaimahaia osatuko dutenak. Erabakia zuzena izan edo ez, mokadu gozoak egiteko aukera izango dute du-darik gabe.

● Su ta Gar, Danba, Julio Kagea, Eskoriatzako Musika Banda, Bries, Txikitxu, Lore Gazteak, Arrostitz, Txintxari, Taun-Taun, Azkona, Erraldoi eta Kilikjen konpartsa, Azkoitiko banda, Izan, Arrasateko gaiteroak, Bergarako Udal Musika banda, Tximeleta txaranga, Leintzeko bertsolari gazteak, Rekalde anaiak, Arrasate Musikaleko orkestra, Komando Morile, Banana Boats, The all Nighters, Tarantella, Bergarako Musika Banda Gaztea, Jon Sarasua, Angel Mari Peñagarikano, Maixa eta Itziar, Las Veneño, Txatanuga Futz Band orkestra, Arrasateko Trikitilari taldea, Nekaezinak txaranga, eta Anker musika taldeak alaituko dituzte aurtengo San Juanak.



Urtero egiten duten moduan, joan den larunbatean **Donostian bizi diren 80 mondragoetar** inguru, meza entzun ondoren, bazkari baten inguruan bildu ziren. Duda barik, jaioterriarekiko eta beren arten duten harremana eta lotura indartzeko balio duen lagunarteko eguna. Urte askotarako izan dadila!



◀ Pasa den aste honetan **Donibane Lohitzune**ko ume talde bat izan dugu **Arrasaten**. Guztira 29 ume etorri dira eta 2 irakasle. Eskoriatzako Museo eskola, kobazuloak eta Udalako Ingurugiro Eskola bisitatu dute. Argazkia egiteko Udalara hurbildu gara eta bertan ariketa batzuk egiten ikusten ditugu.

**ZORIONAK
ARRASATEAR
GUZTIOI!**

Zubizarreta

GALERIA 44

**ONDO IBILI
SAN
JUANETAN!!**

*Etxe txukuna
txoko kuttuna*

Ehune *apainketa*

Otalora, 21 Tfnoa: 77 11 48 ARRASATE

ETXERAT TABERNA

Denok etxera!!

**Ondo pasa
jaietan**

EKAITZ taberna

Iriztu eta trumoiak

**Ez gaude
denok!!**

Marga Mercader

Haur Dantzarien Egunaren arduradun

San Juanetako jaien ospakizunei hasiera emateko igandean ospatuko da Haur Dantzarien eguna. Bertan, Arrasateko Txikitxu eta Lore Gazteak izan dira jaiaren antolatzaileak. Txikitxu taldearen zuzendariarekin egon gara honen berri jakiteko.

— Zenbat eta nondik etorriko dira umeak?

— Gutxigorabehera 400 ume etorriko dira. Deba Garaiko herri guztietatik eta beste hainbat herritatik ere etorriko dira: Aretxabaleta, Eskoriatza, Oñati, Antzuola, Soraluze, Errenteriatik, eta abar; gainera Nafarroa, Bizkaia eta Arabatik ere etorriko da talderen bat.

— Arrasateko zenbat umek hartuko du parte?

— Talde bakoitzean 60tik 70era gaude gutxigorabehera eta horretaz gain, egun berezia denez, kurtsilotan eta ikasten dabilen jen-



deak ere dantzan egingo du.

— Etorriko diren umeak bertako etxeetan bazkalduko dute, ezta?

— Bai, eta alde hortatik izan ditugu arazo batzuk. Ikastola desberdinetan 2.500 orri banatu ziren gutxigorabehera eta horietatik 180k bakarrik erantzun dute baietz. Badakigu jende asko kanpora joaten dela baina hala ere geratzen direnen aldetik ere ez dugu laguntasunik ikusten. Orokorrean

jendeak ez du lehen bezalako interesa jartzen, kalean ez da sortzen lehen ikusten genuen giroa. Eta horrek asko eragiten du umeak etxeetan hartzeko ere. Hori izaten da gure lehen arazoa, nahiz eta azkenean beti konpondu.

— Antolaketa ona behar du halako egun batek, ezta?

— Bai, egia da, antolaketak ona behar du eta gehiena Lore Gazteak taldeak antolatzen du. Eta pentsatzen dugun baino lan gehiago izaten

da, autobusa alokatu, dantza egiteko tokia mugatu, bokadiloak prestatu, nagusien bazkaria antolatu eta abar.

— Ze motatako dantzak izango dira egun horretan?

— Lehengo agurra, gero neska guztiek "Makil txiki dantza" dantzatuko dute, mutilek "Txakarrankua", ondoren neska eta mutilek "Gorulari", "Eskudantza". Eta bukatzeko txiki, nagusi eta ikasten ari direnen artean, "Bedaio", "Larraidantza" eta "Txungalai" dantzak.

— Zenbat denboran ibili behar da dantzari ona izateko?

— Aldatu egiten da pertsonaren arabera. 5-6 urterekin hasten dira gehienak eta nahi badute, jarraitzeko aukera ere izaten dute. Arrostaiz taldea sortu zenetik, hor sartzen bait dira 12-13 urtetik gorakoak. Baina ondo ikasteko, nik pertsonalki, txikitatik hastea gomendatzen dut.



UDALA ATEAK

Erakusketa, salmenta eta jartzekoateak, tarimak, sukaldeko altzariak

Kale aldea, 13 Tfnoa. eta faxes: 77 04 90 ARRASATE

7. Pilotarien Batzarra igandean

Orain arte egin den beza-la, Pilotarien Batzarreko zazpigarren edizio honetan ere, hainbat pilotarik eta pilota munduan lan egin duten beste batzuk omenaldia jasoko dute. Honako hauek:

Arrasate

Santiago Etxeberria Arabaolaza, "Zurdo de Mondragon". 1919ko irailaren 9an Arrasaten jaioa, eskuzko profesionala.

Felix Arriaran Aranburu, "Arriaran I". 1924ko martxoaren 30ean Arrasaten jaioa, eskuzko profesionala.

Jose Arriaran Aranburu, "Arriaran II". 1926ko abuztuaren 13an Arrasaten jaioa, eskuzko profesionala.

Justina Arenaza Azkoaga, "Vasquita". 1919ko azaroaren 30ean Arrasaten jaioa, raketista profesionala.

Zezipio Altuna Sagasta, "Mondragones Txo". 1914ko azaroaren 22an Arrasaten jaioa, erremonte-konponketa profesionala.

Daniel eta Juan Kruz Guridi, zesta puntako pilotari profesionalak.



Prentsaurrekoan eman zen omenduen izenen berri

Iparralde

Jacques Aldama, 1916ko uztailaren 10ean Donibane Lohitzunen jaioa.

Katalunia

Antoni Amat i Curto, 1925eko ekainaren 13an Bartzelonan jaioa.

Nafarroa

Carmelo Luis Diaz "Fitero", 1908ko ekainaren 13an Fiteron jaioa.

Errioxa

Juan del Val Villaver-

de, 1941eko urtarrilaren 8an Herviasen jaioa.

Victor Pascual Artacho, 1945eko apirilaren 16an Cenicoron jaioa.

Araba

Luzio Aginagalde Aizpurua, 1917ko urriaren 19an Itziarren jaioa. Eskuzko profesionala.

Gipuzkoa

Jose Andres Garate Beraza, 1907ko apirilaren 11n Billabonan jaioa, zesta puntako profesionala.

Egitaraua

Oñati, ekainak 19

• 22.30etan Zubikoa Kiroldegiko pilotalekua.

Pilota partiduak - eskuz eta pala motzez- Olinpiadetarako hautatutako pilotariekin.

Arrasate, ekainak 21

• 10.30etan, Udaletxeko arkupean ongiatorria.

• 11etan, Elkarkide eta hildako pilotazaleen oroimenez **Meza Santua**, Parrokiako koruak parte hartuko duelarik.

• 12etan, Herriko Plazan, etorritako guztien ohorez Aureskua.

• 12.30etan, Alai zinetatik, **Pilotarien Batzarren urteroko asanblada orokorra**.

• 13.30etan, Arrasate Pasealekuan, **Argazki Erakusketaren inaugurazioa**.

• 13.45etan, Iturripeko Kiroldegiko Pilotalekuan sari **banaketa** Pilotarien Batzarreko San Juan Torneoeko irabazleei.

• 14.30etan, Iturripeko Kiroldegian **adiskidetasun bazkaria**.

Diskoa, liburuska eta argazki erakusketa

Zazpigarren Pilotarien Batzarra igandean burutuko bada ere, joan den astean zazpigarren edizioa aurkezteko, prentsaurrekoa eskaini zen. Pilotarien Batzarren Egunean burutuko diren ekintzen berri emateaz gain, atera berri diren diskoa eta liburuaren aurkezpena egin zen, baita aipatutako egunean irekiko den argazki erakusketarena ere.

Diskoari dagokionez, esan behar "Pilota kantuz" daramala izenburutzat eta Pilotarien Batzarreko ereserkiak gain, beste zazpi kantat jasotzen dituela. Guztira, 1.500 cassette


eta 500 disko kaleratuko dira, 1.500 PTAtan.

"Pilota" izenburua dauka Arkok pilota eta Arrasateko pilotaren inguruan atera duen liburuskak, 140 orriz osatua. Bertan, gai orokor eta hainbat datu historikoz gain, Arrasateko pilotariekin egindako 20ren bat elkarrizketa eta 200en bat argazki daude.

Azkenik, Pilotarien Batzarrak kulturarekiko duen arduraren erakusle izan daiteke igandetik aurrera Arrasate Pasealekuko erakustokia inauguratuz irekiko den argazki-erakusketa.



ARKO, Arrasate Komunikabideak-ek aurkezturik



**Pilota eta Arrasateko pilotariei buruzko
informazio dena zure esku
(antzinako eta gaur egungo argazkiak,
elkarrizketak, erreportaiak...)**

**Kioskoetan salgai
EZ GALDU AUKERA!!!**

500 PTA

Juan Luis Arejolaleiba, *Gatxi*, zezen suzkoa, Iñaki Arana erraldoia eta Dioni Caballero Arrasateko Erraldoi eta Kilikien konpartsaren lehendakaria, jaietan parte hartzen duten horietakoak dira. San Juan jaietan, urtero une batzuetan euren ohizko nortasuna utzi egiten dute beste pertsonaia batzurena hartzeko.

— *Gatxi*, noiztik zezen suzko?

— Orain bost urte hasi nintzen, lanak banatu egin behar zirela, egin beharra zegoela eta hasi nintzen.

— **Eta konpartsa noiz hasi zen jaiak giroten?**

— Aurtengo San Juan bezperan zazpi urte egingo ditugu. Konpartsa bat sortzeko beharra ikusi genuen, lehen bazegoen txiki bat eta jarraipena eman behar zitzaiola. Hortaz, gaitero eta dantzariekin bildu ondoren, aurrekontua aurkeztu genuen Udaletxean eta aurrera egin digu ordutik. Gaur egun, 4 erraldoi, 2 zaldiko eta 6 kilikik osatzen dugu konpartsa.

— **Zezen suzkoa izatearen alde txar eta onenak?**

— Nire ustez txarrena ordutegia da, gehienetan gaueko 12etan izaten da eta. Beraz, aurretik janaria eta edaria zaindu beharra dago. Politena, berriz, jaietan parte hartzeko modu erraz eta praktikoa izatea.

— **Erraldoiarena?**

— Politena elkarrekin gustora ibiltzea litzateke eta jai-giroko ekintza izatea; txarrena, jenderik ez dagoenean.

— **Indarrean dauden ohiturak dira?**

— Beno, zezen suzkoa ez da jendea ikustera doan gauza bat, ordu puntetan egiten

Gatxi, Iñaki eta Dioni

San Juanetan mozorropean



den gauza berezi bat baizik, dantzaldian eten bat eginez. Zezen suzkoaren arrakasta jaien arrakastaren arabera doa. Jende asko dagoenean, zezen suzkoak, soseguz ibi-

lita ere, plaza hankaz gora jartzen du, batez ere izkintan eta jendea geldirik dagoen tokietan probokatuta.

— Konpartsa oraindik gaztea da, zazpi urte eta gero

ezin daiteke esan finkatuta dagoenik, baina bai aurrera doala. Gainera, gero eta gehiago irteten dugu kanpora, herrian urtean zehar egiten ditugun lau irteerek ez dute urte osoko lana konpentsatzen eta.

— **Disfrazaren barruan disfrutatzen da?**

— Nire gogoa lehen bat lehen bukatzea izaten da, ahal izanez gero bost minutuetan, gero hasten da nire jaiia eta.

— Gu ere antzera.

— **Egiten duzuen lanaren beharrik ikusten duzue?**

— Lehen zezen suzkoa eramatearren kobratu egiten zen, eta nire ustez jaietako partehartzaileak diren neurrian, herritarren esku dagoena aurrera atera behar da. Zezen suzkoa bukatu eta gero, betidanik 8-10 urteko neska-mutikoak atzetik etortzen zaizkit, azpian zer dagoen ikusteko. Nire ustez guztientzat gauza sinpatikoa da, inori ezer erretzen ez bazaiio behintzat.

— Konpartsa hasi eta hiru edo lau urtetan kontzentrazioak egin ziren, urte batean ez ziren egin eta jendeak zergatik galdetzen zuen, uste dut jendeak jaiia eta konpartsa lotu egiten dituela.

— **Zer esango zenieke arrasatearrei?**

— Plaza eta dantza inguru jendez betetzeko eta ekintzetan parte hartzeko, jai tabernetatik aparte kalean ere egin behar da eta. Jende gehienak jai izanda, edozer gauza egiteko aukera dauka, baina jaiak herri baten nortasunaren zati garrantzitsua dira, herritar denak biltzen dituen gauza bakarrenetarikoa. Pena da jende askok hanka egitea, nahiz eta gelditzen direnek ondo pasatu; egunen batean jaiak galtzen badira, orduan konturatuko gara duten garrantziaz.

— **“ Ekintzetan parte hartzeko eskatuko genioke jendeari ”**

ITURRIOTZ taberna

SAN JUANETAN ERE
GIRORIK JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



ILUNTZ TABERNA

IREKI BERRIA

ZATOZ SAN JUANETAN
JAI GIRORA!

ENARA
OSAGIRRIAK



Ondo pasa
San Juanak!!

Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate

TORRES oiNETAKOAK

Maala Errebala 23, Tfnoa: 77 14 34 Arrasate



Karmelo Madinabeitia eta Juan Pedro Azkoaga herrian geratuko dira San Juanetan. Hori baino lehen, hemen bildu ditugu euren gazte denborakoak gogoratzeko.

— Noiztik ospatzen dira San Juanak Arrasaten?

—Jesus! Akordurik daukagun ezkerro bai behintzat. Orduan hilabete lehena go hasten ziren prestakuntzak, etxeak zuritzearekin. Karea erabiltzen zen eta desinfektatu ere egiten zen aldi berean. Gero erropa berria ere egiten zen, jostunarenean, ohitura izaten zen eta San Juanetan soinekoa estrenatzea.

Seinoritek, zerbait zirenek, Urizarren aurrekaldean pasiatzen zuten eta gainerakoek arkupeetan. Kategoria hori zegoen, tontokeria hori.

—Zenbat jai egun ziren?

—Hiru egun bezpera kontatu barik. San Juan, biharamona eta hurrengo eguna. Inguruko herrietan bi egun bakarrik. Bezperan arratsaldeko hiruetan hasten zen jai. Zazpitan salbea eta gero dantzaldia eta hurrengo egunean meza nagusia eta kontzertua eguerdian. Kontzerturako banda militar bat etortzen zen, herrikoa indartzeko. Plaza oso eder egoten zen, jendez beteta eta arkue tan koloretako bonbilatxoak jartzen ziren. Guzti hori 1917tik hona, guk akordua dugunetik bai behintzat.

—Jaiak beste zentzu bat zeukaten orduan?

—Bai, beste ardua bat egoten zen etxea prestatzeko eta, kanpokoak etortzen zirelako. Orduan konbidautza egoten zen, lagunak eta familiarrekoak, kanpoan bizi

Karmelo Madinabeitia eta Juan Pedro Azkoaga

Garai bateko San Juanei begira



ziren mondragoetarrek, herriko semeak. Gaur egun jende gehienak jaietatik ihesi herritik alde egiten duen bezala, orduan alderantziz izaten zen, jende gehiago etortzen zen. Ez zegoen autorik eta, nora joango zen bada, jendea? Jaiak lehen bezala ospatzen dira baina mondragoetarrok jai ei egiten diegun harrera aldatu egin da.

—Zer erizten diozue gaur egungo giroari?

—Oraingoak gazteentzako dira baina hala ere niri hemen pasatzea gustatzen zait. Baina plazan bertan bizi izanda, zarata handia egoten da. Lehen, hamabietan kalejira bukatu eta etxera. Guraso askok mantekadua hartze-

ra irteten zuten erruberen ondoren. Suzko erroberetan 24koan errobera nagusian San Juanen irudia agertzen zen eta jendeak txalo asko egiten zuten. Gasteizko Lezea piroteknia etortzen zen.

Musika ere orduan oso garrantzitsua izaten zen. Elizako funtzioek ere oso ikusgarriak izaten ziren. Apaizek jantzi dotoreak izaten zituzten. Gasteizko Viñaspre, Resurreccion Maria Azkue eta Gorosarri musikoa urtero etortzen ziren jai ospatzera.

—Diru aldetik?

—Guk gastetan jaietarako gordetzen genuen pagatik, gutxi izan arren, orduan ez zegoen dirurik eta. Udaletxearen aldetik oraingo

antzera, gauza asko antolatzen zen eta. Sokamuturra izaten zen eta Santa Barbaran zezen plaza. Bilboko Txatillo, Finito de Valladolid, eta horrelakoak etortzen ziren, torero politikak. Taberna ere jarri zuten urte baten baina frakasoia izan zen. Kariquirri alkate zela izan zen hori, 31 edo 32an.

—Dantzaldiak zelakoak izaten ziren?

—Plazan izaten ziren dantzaldiak, musika banda eta txistulariena txandan. Pieza biko txandak izaten ziren eta biak dantzan egin eta batzuk trikitrixan gertzen ziren arren, gehienak pasia da egitera joaten ziren estaziñoraino eta hurrengo bietarako denbora kalkulatu izaten zen. Jende guztiak egiten zuten dantza, euri nahiz aterri. Gainera mondragoen euria zenean guardasolarekin egiten zen dantza eta horrek atentzioa deitzen zuten Probintzia guztian.

—Barrakak, barkileroak... etorriko ziren, bada.

—Bai, kateedun txalupa txo batzuk ziburu bezala eta baita tiro pitxoia ere. Barkileroa, heladeroa eta txurreroa ere etortzen ziren, jai guztietan bezala baino normalean baino gehiago. Erdiko kaleko heladeroak bi frigorifiko zituen, bata Kurtzetxikin eta bestea Udalan, elurra pilatuta egindakoak. Urte sasoi baten bakarrik erosten zen eta jai egunetan bakarrik gainera.

—Txopoarena noizko kontua da?

—Hori berriagoa da. Jartzen hasi zenean ez zen plazan jartzen, kioskoa zegoen eta. Maixorren etxeko, Zekostietako izkinan jartzen zuten. Baina ez da gauza klasikoa eta antzinakoa. Plazako kioskoaren bueltan egiten zen dantzan.

— **“Mondragoen guardasolarekin egiten zen dantzan euria zenean”**



SOKOA tabernan izango duzu San Juanetan girorik onena

U D A L A I T Z

T A B E R N A

DASTA ITZAZU GURE TXANPINOI GOXOAK

ETA JAI ZORIONTSUAK IZAN

Aurtengo San Juan jaietan ere kirol eskaintza zabala

● **Halterofilia** erakustaldiak emango dio hasiera aurtengo San Juan jaietako kirol eskaintzari. Larunbata goizean, 11ak aldera, hamarren bat lagunek egingo dituzte saiakerak Herriko Plazan. Aipatutako hamar lagun horien artean, arrasatear bakar bat izango da, Angel Garcia, Estatuko Txapelketan parte hartzeko marka egiten saiatuko den gizona, hain zuzen ere.

Azken bi urteotan Arrasateko Halterofilia Taldea 4-5 lagunek osatzen dute, baina gaur egun gelditzen den bakarra Angel Garcia da. Angel Garcia 60 kilotako kategorian hartzen du parte eta bere errekorra 195 kilotetan dago, 85 kolpe batean eta 110 bi kolpetan. Estatuko Txapelketan parte hartu ahal izateko, errekor hori gainditu egin beharko du.

● **Arrasate Rugby Taldeak** aspalditxo eman zion bukaera denboraldiari, baina San Juanetan berriro ere lanera bueltatuko da. Izan ere, bihar arratsaldeko 4etatik aurrera, San Juanetako torneo burutuko da, Arrasate, Sevilla eta Baionako Tipi Tapa taldeen artean.

Torneoa liga erara jokatuko da eta partidu bakoitzak 40 minutuko iraupena izan-



Rugbyko partiduak bihar arratsaldean jokatuko dira

go du, lehenengo Arrasatek Sevillaren aurka jokatuko du eta galtzaileak Tipi Taparen aurka. Azken partidua, Tipi Tapa eta Arrasate - Sevilla neurketatik irabazle ateratzen denaren artean. Irabazlea, puntu gehien lortzen duena.

Baionako Tipi-Tapa jokalaria beterean osatutako taldea da, lehen ere arrasatearren aurka jokatu duena. Sevilla-ren aurka lehen aldiz bihar jokatuko dute arrasatearrek; beraz, edozer gauza gerta daiteke torneo honetan.

● **Txirrindularitzak** bi zita ditu aurtengo jaietan: bata bihar arratsaldeko 4.30etan,

benjamin, alebin eta infantil mailako neska - mutilentzat; bestea, berriz, ostegunean, lehen eta bigarren mailako afizionatuentzat **LIV. San Juan Saria**. Biharko lasterketan ume piloak hartuko du parte Portaloia, Garibai, Otalora eta Kondekua ibilbidean. Osteguneko lasterketak 118 kilometro ditu eta ibilbideko aipagarriena, eta beharbada erabakiorra, Untzillako gaina izango da, helmugatik gertu samar dago eta. Lasterketa honi goizeko 9.30etan emango zaio hasiera, eta 12.30ak aldera bukatuko da, irabazleak 30.000 PTako saria jasoko du.

● **Pilotak** zita garrantzitsua du aurtengo egitarauan. Duda barik, sona handiena Pilotarien Batzarrak du. Horretaz gain, herriko txapelketa aipagarri, bihar goizeko 10.30etatik aurrera San Juan Esku Pilota XII. Sariko finalak Iturripeko frontoian, guztira sei partidu Benjamin, Infantil, Prejubenil eta Jubenil mailetan.

Txapelketa hori alde batera, San Juanetako ohizko desafioak ostiralean, arratsaldeko 6.30etatik aurrera, aurtengainera bi partidu jokatuko dira: Xipri eta Txispas Txikito de Veneras eta Txikuriren aurka alde batek, eta Urta Irazolaren aurka bestetik.

● **Mondrak** futbol denboraldiari amaiera eman zion, baina hala eta guztiz ere Atxabalpen izango da zerikusirik, igandean goizeko 11etatik aurrera **Herrero Memorialaren finalak** jokatuko dira. Arrasate Kirol Proiektuan txapelketan 12-13 urteko neska- mutilek hartu dute parte. Mutilen multzoan lau talde izan dira, bi Arrasateko, Aretxabale-tako bat eta Eskoriatzako beste bat; neskenean, berriz, hiru izan dira partaide, Arrasateko bi eta Eskola Politeknikako bat.

“Bihar, pilota finalak, rugby partiduak eta umeen txirrindulari lasterketak”

**K
L
A
S**



**GAZTE
MODA**

Iturriotz, 23 Tfnoa: 77 02 76
ARRASATE

**ONDO
PASATU
JAIK!**



Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE Tfnoa: 79 97 86

MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75
ARRASATE

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4



**PINTURAK eta
PAPERZTAPENAK**
Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

Monte taberna

Maalako errabala, 11 Tfnoa: 79 20 56

NAROKI

Urrezko bitxiak

NAROKI
Opariak, Jostailuak, Liburuak,
Paperdegia
Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47

Memesa

79 42 22


comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4 Tfnoa: 79 13 84



ILLARRAMENDI

ERLOJUDENDA
BITXIDENDA

ONDO PASA SAN JUANAK!!

Iturriotz, 7 bis Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE

LASAGABASTER

*Jai
zorientmak!*



*Ondo pasatu
jaiak!*

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



GARAGORRI

O P T I K O A K

- Eguzkitarako betaurrekoak
%50ean

- ACUVUE, botatzeko lehen lentila
mundu mailan



Iturriotz, 29
Tfnoa: 79 16 98
ARRASATE

Bidekurutzeta, 13
Tfnoa: 76 13 73
BERGARA

Zer nahiago?

Harristi

Kuadriletakoa

- **Txoznak ala tabernak?** Tabernak, hobeto daude. Dena dela, jaietan tabernak itxi eta gero txoznak ondo datoz.
- **Kalimotxoa ala kubatak?** Kalimotxoa, ez dut besterik edaten.
- **Ajea kentzeko?** Berrero edatea.
- **Aukeratu taberna bat.** Irati.
- **Eguneko ala gaueko giroa?** Gauekoa.
- **Neska ideala?** Hamazortzi urtekoa eta polita.
- **Ispiluan begiratzerakoan zer ikusten duzu?** Irudi zatar bat.
- **San Juanak ala Santamasak?** Santamasak, giro jatorragoa da, jendeak gehiago hartzen du parte.
- **Abarkak ala zapatilak?** Zapatilak ez dituz inoiz jantzi eta abarkak urtean behin edo birritan.
- **Txapela jatea gustatzen zaizu?** Santamas eta Olentzero egunean bai, bestela ez.
- **Zein izan da egin dizuten erregalorik politena?** Kuadrillak oparitutako kotxea.
- **Ezkonduta zaude? esperantzarik?** Ez, Urkiolan izan nintzen eta beste urte baterako prorroga eskatu dut.
- **Bazkaritan zer edaten duzu?** Normalean etxean Kas-a, baina bestela kalimotxoa.
- **Arrasateko tokirik politena?** Monterroi edo Portaloia.
- **Amets bat?** Arrasaten bizi izatea.
- **Oporretan, nora?** Idearik ere ez, azken sei urtetan hemen geratu naiz, baina aurten Galiziarra joango naiz.
- **Bota txiste bat.** Txano gorritxo mendian zehar doa eta otsoa ateratzen zaio:
 - Txano gorritxo, nora zoaz?
 - Errekara, ipurdia garbitzera.
 - Jode, nola aldatu den ipuina!




Bertsotan

Arrasatek kanpora?

1
Mondrauetarrak sarri izanda ekimenaren eredu gaur opporraren usai beroak jai zaleak ditu galdu. Arrasate hau mespresatzeko aukera ederra daukagu, gure herria lan leku hutsa bihurtzen baldin bazaigu.


2
Etxetik kanpo joana denak ezingo du asko jakin, nola gabiltzan gau eta egun kalez kale lagunekin. San Juan bera santu ona da nahiz ta ez izan San Fermin, argi ibili beharko dugu goizeko zezen baltzakin.

JON IÑAKI IZARZELAIA



ZURICH ASEGURUAK

Arrasate Pasealekua, 33 etxabea Tfnoa eta faxa: 79 71 52
ARRASATE



SAN JUAN JAI
ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE
ARRASATEKO
UDALBATZAK
ARRASATEAR
GUZTIOI

ZUEN ZERBITZUAN:

AUKEA, ITURBIDE EGOITZA, UDALAKO INGURUGIRO
ESKOLA, DROGOMENPEKOTASUN ZERBITZUA, KIUB,
ESKOLA KONTSEILUA, GAZTERIA BULEGOA, MONTERRON
KULTUR-ETXEA, AMAIA ANTZOKIA.


Hil Honetan...

I. Argazki Rallya



**EKAINAK
21**

- Argazkizale guztientzat
- FUJI FILM-en babesean
- 300.000 PTA saritan
- Izenematea: IKATZen denda guztietan



Canon

Astea



**22tik
27ra**

- Argazkigintza eta bideoko Canon produktuen erakustaldia
- 23, 24 eta 25ean Canon argazki-tresneriaren errebisioa DOHAINIK
- PREZIO BEREZIAK
- Canon Astea IKATZen Gorbea kalea, 38 (Gasteiz)



Uda honetan bidaia egin behar baduzu, etorri aurretik IKATZera, gauza dibertigarri bat eman-go dizugu eta irabazteko asko izango duzu.

ECOCENTRO
Los Herran, 34
Tfnoa: 27 09 22
GASTEIZ

DENDARABA
Tfnoa: 14 82 96
GASTEIZ



Iturriotz, 8
Tfnoa: 77 04 01
ARRASATE

ECOCENTRO
Portal de Villarreal
Tfnoa: 28 36 01
GASTEIZ

Gobeia, 38
Tfnoa: 28 54 54
GASTEIZ

UZTAILERAKO

GAU ZORAGARRIAK

MONTERRON PARKEAN



3, OSTIRALA Gaueko 10,30etan Monterron Parkean

SONORA KARIBE SALSA

Sarrera DOAN.

4, LARUNBATA Gaueko 10.30etan Monterron Parkean

Zinea: Pelikula: **"ATRAPA ESE MANIQUÍ"**

Zuzendaria: Stewart Raffilli

Sarrera DOAN.

9, OSTEGUNA Gaueko 10.30etan Herriko Plazan

Kale antzerkia. **MARKELIÑE: "ARGAMENON"**

Sarrera DOAN.

11, LARUNBATA Gaueko 10.30etan Monterron Parkean

Zinea: Pelikula: **"ASESINEME, POR FAVOR"**

Zuzendaria: Gregg Champion

Sarrera DOAN.

17, OSTIRALA Gaueko 10.30etan Monterron Parkean

Antzerkia: **UR: "SUEÑO DE UNA NOCHE DE VERANO"**

Sarrera: 500 PTA. Gazte Txartelarekin: 300 PTA.

18, LARUNBATA Gaueko 10.30etan Monterron Parkean

Zinea: Pelikula: **"EL 4º HOMBRE"**

Zuzendaria: Paul Verhoeven

Sarrera DOAN.

21, ASTEARTEA Gaueko 10.30etan Monterron Parkean

Jazz emanaldia: **"HOTLANTA"** Seikote amerikarra

Sarrera: 500 PTA. Gazte Txartelarekin: 300 PTA.

23, OSTEGUNA Gaueko 10.30eta Monterron Parkean

Folklore emanaldia. **UKRANIAKO METALLURG folk taldea**

Sarrera: 500 PTA Gazte Txartelarekin: 300 PTA.

Zer nahiago?

Eva Romero

(Tanborradako barrileroen zuzendaria)



- **Tanborrada, ikusteko ala parte hartzeko?** Parte hartzeko. Gainera urte asko dira hasi nintzela.
- **Gona motza ala luzea?** Motzak gehiago gustatzen zaizkit.
- **Mutikoez ala neskez jotzen dute hobeto?** Neskez.
- **Herriko jairik gustokoena?** San Juanak, noski.
- **Postrerako?** Flana.
- **Jende aurrean lotsatzen zara?** Bai, pixka bat bai.
- **Pelikula bat?** "La familia".
- **Telebistan zer ikusten duzu?** Denetatik, albisteak, erreportaiak...
- **Oporretan nora?** Mediterraneo aldera, Saloura.
- **Arrasateko lekuri zatarrena?** Zaborrak dauden tokiak.
- **Norekin joango zinateke ilargira?** Ametsetako mutilarekin.
- **Kontatu sekretu bat.** Ikastolan irakasle guztiek gaitzizena dutela.
- **Eguzkia hartzea gustatzen zaizu?** Bai, baina hondartzara joatea gehiago.
- **Urdina ala berdea?** Biak gustatzen zaizkit.
- **Ura gasarekin ala gas barik?** Gas barik.
- **Gauean etxera joateko ordurik baduzu?** Bai, ordubiak aldera.
- **Umeak zigortzearen alde zaude?** Ez, ez, ez horixe.
- **Botika ala bedar ura?** Segun ze gauzatarako.
- **Kantari bat?** Tapia.
- **Zer ikasi nahi duzu gerora?** Denborak esango du. Oraindik ez dakit.
- **Arrasate leku ona da bizi izateko?** Bai, niretzat bai.
- **Esan dizuten piropo politena?** Ez naiz gogoratzen, baina "Ze ile polita".
- **Amaren ala aitaren antza duzu?** Esaten didate amarena dudala.

Bertsotan

Pilotariak San Juanetan

1
Jaiak prestatzen mondragoitarra izanagaitik aparta, tanborrerorik ezean zeinek aterako du zarata; pilotan ere nahiz antolatuta jai egun eder galanta, jokatzen dute gazteek baina beteranoenak falta.

2
Xipri, Langa ta Txispas pilotan horren artistak izanik, enpresario Urangak nola ez digu ipini planik; afizioa hauen eskean daukagu aspaldidanik, pilotazale geradenontzat aurtan ez al da San Juanik.

PATXI GOIKOLEA



ARRASATE

UMEEN JANTZIAK

Otalora, 29 Tfnoak: 77 05 61 ARRASATE

Jai hauetan zorionak eta
gogoratu laster izango
ditugula udako merkealdiak.

Gipuzkoa:
bihotz-bihotzean



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari
gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik
aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako
nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**.
Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren,
ohiturarik errotuenen alde.
Gure jende guztiaren alde.
Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián

San Juan Suaren kontuak

Orain dela milaka urte, kobazuloen zaindaria zen sua, gizakia animalia basatiengandik babesten zuena. Elikagaiak prestatzeko eta hotzaren aurka borrokatzeko beharrezkoa den berotasuna ere ematen zien. Azken batean, bizi-emaletzat zuten kobazuloetako bizilagun haiek sua. Ez da arraroa, beraz, eguzkiarekin batera gurtu izana.

Geroztik ere garrantzi handia izan du suak eguneroko bizimoduan eta zer esanik ez euskal baserrietan. Sukaldea da baserriaren ardatza, eta sua, sukaldearen oinarria. Sua da baserriari bizia ematen diona, bere ordezkaria eta arbasoei egindako oparia. Zenbait eskari ere luzatzen zaio: hortzak ateratzen ari zaizkien haurren aldekoa; pozoinduta egon daitezkeen elikagaiak garbitzea; pertsona eta animalien gaineko babes, eta antzerako beste hainbat.

Argi dago sua elementu baliagarria dela, baina on-



dorio txar ugariren eragile ere bada. Horren erakusgarri dira ondorengo bi esaera zahar hauek: "Sua eta ura mo-

roi onak, nagusi gaiztoak"; "Ura eta sua belaunaz behetik".

Morroji edo nagusi, suak

badu bere garrantzia egun hauetan eta batez ere ekainak 23an, San Juan bezpera gauean. Gau honetan pizten da "San Juan sua" izenez ezaguna dena, herri, auzo eta baserri bakoitzean. Sua inguratuz, ondorengo abestu ohi da baserri askotan: "Gure solano lapurrik ez Badago bere erre beitez Pistiek, zapoak, sugeak erre, erre

Eta peste txarrak erre, erre".

Jarraian, suaren gainetik salto egiten da. Hemen ageri da, suari ematen zaion babesle funtzioa.

Kontuan hartu behar da, eguzki ordu gehien orain izaten dugula eta horrek lotura zuzena du suaren erabilerarekin. Nolabait, egunari jarraipena ematen zaio gauean suaren bitartez. Lurralde indoeuropearretan zabaldua dagoen ohitura da, eguzkiak, urtero egiten duen bidea jarrai dezala eskatuz.

LIHER LARREA

PUB HAIZEA



ARRASATE PRESS




77 05 65



Kiroletako modako zure dendak agurtu egiten zaitu jai hauetan

DRAFT-CENTER

Otalora, 21 Tfnoa: 79 48 31 ARRASATE



G

oiko argazkian aspaldi plazan zegoen kiosko zaharra ikusten da, gainean txistulariak eta inguru-

ruan jendea eskutik helduta dantzan egiten, auskalo zein dantza!

Beheko argazkia egin zenetik askoz ere denbora gutxiago pasatu da, berriro ere herriko plaza agertzen zaigu eta lehen kioskoa zegoen tokian orain txopoa, San Juanetan ohitura berria, mondragoetar zaharrenek diotenez. Horretaz gain, zezena sokamuturrean ageri da eta plaza jendez beteta.



TROKO

J A N T Z I D E N D A


**ZORIONAK
DENORI!**

Olart, 6
ARRASATE

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

Erdiko kale. 79 19 37



errerias. 79 87 62

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



Araba Etor., 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32

Koop. E.

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

92-93 IKASTURTEA


ALEMANA FRANTSESA INGELESA

Matrikula irekita

Hurbil zaitez gure bulegoetara.

Arrasaten 9etatik 1etara
4 etatik 8etara

Oñatin 4etatik 8etara



ZENBAKI

**ERRENTA ETA
ONDAREAREN
AITORPENA**

Basabe Industrialdea
ARETXABAETA
Tfnoa: 79 88 75

Bitel Etorbidea, 15
ARRASATE
Tfnoa: 79 75 99

**Ardo, likore eta champagne marka onenen
banatzaile onena.**

TXOMIN ZUBELDIA

Txomin ardoa / Keler garagardoa

ZORIONAK ETA ONDO PASA JAIK

Arrasate: Tfnoa: 79 17 42

Oñati: Tfnoa: 78 18 43

- INAGURAZIOA -

©stikal
19an



ELISABETH




ESTRO BERRIKO
JANTZIDENDA



Zure astialdia
kalidade onez
jantze ezaun
eta
harrituta
uteiko eaituen
preziotan

Elisabeth

ARABA ETORBIDEA 18 • 10 POSTA KUTXA • 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)
☎ (943) 771486 FAX • (943) 797333



D

antzariak
Herriko
Plazan,
batean
gazteak eta
bestean
helduak, urte
berekoak

dirudite. Aipagarri, bietan ageri den eliz ataria, benetan ikusgarria eta ume dantzarien argazkian plaza erdian agertzen diren estakak, baliteke jolasen baterako izatea.

JM

J. MARKIEGI

Gizonezko jantzidenda


Olarte, 2 Tfnoa: 79 15 32 ARRASATE

ZORIONAK!!

G



aur
bezala,
lehen
ere San
Juane-
tako
egita-
rauaren

barruan Meza Santua sartzen zen; behar bada, orduan gaur baino garrantzi handiagoa emango zizkion gainera. Argazkia noiz ateratakoa den jakiterik lortu ez arren, deitale interesgarri pare bat aipa daitezke: bata jantziena eta bestea elizatik irteteko erabiltzen den atearena, Maritxu Kajoi egoten den atea, eta orain sartu eta irteteko sekula erabiltzen ez dena.



MONDRAGONESA GRAFIKAGINTZA
Arrasateko herriari agur bero bat jaietan

Olarte, 10 Tfnoa: 79 12 63 ARRASATE



ARRASTE KRISTALDEGIA

Biltegi eta erakustokia:


Nafarroa Eterbidea, 25 etxabea. Tfnoa: 77 07 74 ARRASATE

ESKIÑA taberna

Goizeko 7etan zabaltzen dugu

Olarte, 25 Tfnoa: 79 20 20

M
E
C
A



R
A
P
I
D

MECA-RAPID-ek jai zoriontsuak opa dizkizu

- Ordenagailu bidezko mekanografia ikastaroa 48 ordu
- Ikusentzutezko mekanografia 200 eta 350 p x m
- Ordenagailu bidezko mekanografia
- Master V. D. takigrafia 80 eta 120 hitz/minutuko

Otalora Lizentziatua, 3 1. Tfnoa: 79 68 53 ARRASATE

RUMBA taberna

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!


Iturriotz Kalea ARRASATE



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Zure urteak ez dituzula aditzera eman nahi? Zahartzaroaren atarian zaudelakoan? Lasai motel, oraindik bizi guztia daukazu aurrean.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra


Ez ezazu barraketan diru gehiegi gastatu, bestela oporrak miseria gorrian pasatzeko arriskua duzu.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Azkenaldi honetan gaixotasun latz batek zapaltzen zaitu. Sendagilearen kontsultatik buelta bat eman beharko duzu berandu izan baino lehen.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

San Juan jaietan ez ezazu edan ardo gehiegi, kalte egin bait diezazuke eta hamabietarako etxean, badakizu!



VIRGO

Abuztuaren 24tik
Irailaren 23ra

Kale-garbitzaile lana aurkitu dezakezu San Juan jaien ostean kristalez beterik dauden kaleak garbitzen.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Zure amak ez al dizu errietarik egiten zure itxurengatik? Ordua da ohartzeko dagoeneko ez gaudela 60. hamarkadan.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Jaietan gaupasa egitekotan? Goizetan ez zara zezenetara joateko moduan egongo. Beharbada zezenak harratuko zaitu. Kontuz!



LIBRA

Irailaren 24tik
Urriaren 23ra

Lan gehiegi egiten duzu, estress-a harrapatzeko zorian zaude. Bizitza honetan disfrutatzen ere jakin egin behar da. Animo, utzi lanari!



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Jaiekin batera badator eguzkia, beraz kontuz hondartzan! Karamarroa bezain gorri jarri barik!



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Nobioa aurkitzeko aukera ederra duzu aurtengo jaietan. Etor zaitez plazako dantzaldietara han aurki dezakezu zure bihotza poztuko duen azukre kokkorra.



SCORPIO

Urriaren 24tik
Azaroaren 22ra

Pixka bat baretu beharrean zaude, bestela, zure senitartekoak moskeatuegin daitezke. Argi ibili!



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Oraindik lagun gabe zabiltzala? Uda badator eta ez ezazu aukera hau pasatzen utzi.

CLEGAS

**Gasa
Gas instalazioak
Berogailuak**

Elkano, 40 Tfnoa: 77 00 77 ARRASATE

LASAI KOLTZOIDENDA

Zorionik beroenak!!

Ferrerias, 28 Tfnoa: 77 08 11 ARRASATE

MENDI taberna

Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

22
ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Arrasateko albisteen laburpena.
9.20etan, **San Juan 91 laburpena**. Iazko jaien laburpena.

23
ASTEARTEA

12.30etan **Magazinea: San Juan 92**. Elkarrizketa eta bideoak nagusi.
18etan **ATBketan** kalean.
19.15etan **Telematon**. Izan zaitez egun batez izarra.
19.30etan **Konparsak**. Zuzeneko soinua.

24
ASTEAZKENA

12.30etan **Magazinea: San Juan 92**.
18etan **ATBketan**. Umeak izango dira protagonista.
19.15etan **Telematon**.
19.30etan **Jaialdia**. Bertsolari gazteak, trikitixa eta Arrasateko gaiteroak.



25
OSTEGUNA

12.30etan **Magazinea: San Juan 92**.
18etan **ATBketan** kalean.
19.15etan **Telematon**. ATBko kamarak kalean hartutako kontuak.
19.30etan **Jaialdia**. Bertsolarik eta Arrasateko trikitixa taldea.


26
OSTIRALA

12.30etan **Magazinea: San Juan 92**.
18etan **ATBketan** kalean.
19.15etan **Telematon**.
19.30etan **Incasables** txaragaren emanaldia. Jaien egitarauan programaturiko jai izango dugu zuzenean.

**SEBERO
ALTUBEKO
PLATOTIK**

**ZU
ZE
NE
AN**

!!!



BEATRIZ

Poltsa eta

oinetako denda

Jai zoriontsuak denori!!

Erdiko kale, 11 Tfnoa: 79 14 33 ARRASATE

Lose


Lehenik bideoaren

abentura



Eta ondoren

behin betirako kreatibitatea.



Efektu berezien
sortzaile digitala

Titulatailedun
editorea

Bideoko produkzio sistema osagarriak. Sartu eta eskatu informazioa!!

Elektraetxegailuetako azken berrikuntzak ere aurkituko dituzu:
AEG, BOSCH, FAGOR...


Guzti hau eta gehiago:
Iturriotz, 15 Tfnoa: 79 15 16 Faxa: 77 04 19 ARRASATE

Aranzabal



Bila itzazu kalitatea eta detailea!!


Sukalderako ekipamenduak:

FAGOR  **banatzaile ofiziala**

Bañez Doktorea, 2 (San Andres Auzoa)
Tfnoa: 79 18 92 Faxa: 77 14 50 ARRASATE



OPEL ASTRA BERRIA



Puntuantzeko Injekziodun Astra motore-serie berria, potentzia handiagoa cm³-ko.

POTENTZIA
ADIMENTSUA

*Imajinatu! Opel Kontzesionariak
Opel Astra berriaren potentzia
egiaztatzen gombidatzen zaitu.*

*Beti zurea,
Opel Astra.*



Imajinatu Astra motore berrien posibilitateak. Imajinatu 82tik 150 CV-erainoko potentzia adimentsua. Imajinatu, zeure ekonomian pentsatzen duen potentzia, eta eraginkorra, azken-azkeneko. Puntuantzeko Injekzio Sekuentziala duena. Ekologiaren adiskide, 3 bideko Katalisatzailea integratuta. Imajinatu, potentzia adimenarekin bat eginda. Opel potentzia duzu.

Gidatzeko atsegina dagoeneko ez da zilindrada-kontua, adimen-kontua baizik. Egiaztatu zeure Opel Kontzesionari Ofizialean. Gombidatua zaude.

OPEL

BADAZU OPEL ASTRA-RIK 1.547.000 PZTA.*

OPEL ASTRA, ALEMANIAKO INJINERUTZA ETORKIZUNERAKO

* Fabrikatzaileak gomendaturiko prezioak (Penintsula eta Balearetarako), garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne. Kopuru handiko salmentak ere bai. Eska informazioa zeure Opel Kontzesionari Ofizialari eta finantziario eta leasing-erako, ez ahaztu Opel Credit, Opel Leasing eta Opel Renting-en baldintza paregabeak.

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako

kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65



OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.